

I. Euskal Herriko esku langintzaren azoka Katalogoaren aurkezpena

Erreterriako Ereintza Elkartearen ekintza kulturalak hurbiletik jarraitzeko aukera izandu dut, etnografiko arloaren lanetan erdiratuak kasu honetan; eta atseginez beterik aurkitu naiz, asmoak errealitatea bihurtzeko orduan, beharrezko diren lanen antolaketan erakutsitako funtsarengatik. Eta hau ez da noski, egunero ikusten den gauza. Zoritxarrez askotan, ekintzaren berezko zailtasunak gairiditu ez bainan alboratu egiten bai dira, lan merkean eroriaz. Azaleko gauzetatik ordea gutxi geratzen da, askar lekututzen bai dira bere ondorioak. Lanaren fruituak jaso nahi badira, tajuz erein behar da; eta hau honela gerta dedin, aurretik funtsaz gertutu beharko da landu nahi den lan arloa.

1979 urtean Ereintza Elkarteak, aurrera eramandako I Euskal Herriko Esku Langintza Azokaren antolaketa onak, baieztu egiten du lehen aipaturiko arrazoiak. Izan ere artisau esberdinen hautaketa eta bere lanaren ondorengo eraketa eta aurkezpena, gure Herrian itsatsirik dagoen etnografiaren benetako erakusgarri bat izandu zen. Etxeko sutegiaren errementaria eta kaikugi-



[I. Euskal Herriko esku langintzaren Azoka Katalogoaren] Aurkezpena = Presentación [al Catálogo de la I Feria de artesanía del País Vasco] / Juan Garmendia Larrañaga. - En : *Euskal Herriko esku langintzaren Azoka Katalogoa I. Erreterria = Catálogo de la I Feria de artesanía del País Vasco. Rentería*. - Erreterria: Ereintza Elkarte, 1980. - 32 p. : il. ; 21 cm. - P. 2-4. - OC. T. 2, p. 613-614

lea, buztinlaria eta irulea, uztarriaren lantzea eta kuxaren zizel-lanok, beste zenbait lanbide eta esku-langintzen artean, ekonomiko egitura esberdinen adierazgarri jatorrak bezala oroituko ditut.

Orain, hango agerpen bizi hura liburu egiten da. Erakusketa grafiko honek, bere adierazpen textoak eta artisauen giza-aipamenarekin, bilduma edo katalogo baten muga hotzak gainditzen ditu, didaktiko arloaren barnean sartuaz. Eta hau noski, gure Herriaren altxor kulturala aberasten duen ekin-tza interesgarri bat da oso.